

June Saez Galdos

A maila • 2 saria

17 urteko ordiziar gaztea naiz. Maite ditut lagunartea, musika, dantza eta parranda. Baita beste gauza asko ere. Gaztelu-n eguzkia sartzen ikustea izugarri gogoko dut. Magia dirudi. Ordiziako Urdaneta ikastetxean hasi nintzen eta Oiangurenen ari naiz batxilergoa ikasten. Covid-ak eraginda idatzi dut *Madarikatua zu!* eta sariak benetan poztu nau. Asko kendu digu birusak, baina saria behintzat eman dit. Eskerrik asko!



MADARIKATUA ZU!

Non geratu da gure bizitza?
Eguzkia itzali da bat-batean;
ilusioak desagertu eta egunsentiaren argia
ilun, beltz eta lauso.
Txikia, ikusezina...madarikatua!
Bakartu, urrundu eta zuloratu gaituzu,
Zoritxarrekoak gu!
Non geratu da gure bizitza?
Bizi gabeko bizitza,
dantzatu gabeko dantzak,
ospatu gabeko festak,
arnastu gabeko airea,
musukoa aurpegian...
Baimenik gabe, gure inguruan
zabiltza zu, madarikatua!
Ametsen lapur, askatasunaren debeku,
Zer egin diguzu?
Nora eraman duzu gure bizitza?
Heriotza ekarri duzu etxera;
negarra, tristura, ezbeharra.
Bihotzak apurtu dituzu, osasuntsuak gaixotu...
Agurrik gabeko agurrak
bakardadez jositako mina,
besarkadarik gabeko musuak,

malkorik gabeko negarra.
Negarra, negarra, negarra...
Nora eraman duzu gure bizitza?
Nirea, zurea, harena; gurea.
Guztiaren erdigune bihurtu zara;
unibertsoaren jaun eta jabe,
munduaren errege
eta gu zure morroi.
Morroi, morroi, morroi...
Ikusezina izanik, nolako kaltea!
Zoaz guretik, zoaz urrun!
Itzuli gure bizitza. Bihurtu
etsipena, itxaropen
malkoa, irrifar
tristura, poztasun
HERIOTZA, BIZITZA!
Madarikatua zu!